

AHOZKO HISTORIA: OROIMENEAN LOKARTUTAKO AHOTSA

*Gerra Zibilaren (1936-1939) eragina
Gipuzkoako herri bateko bizitza sozialean*



*Andoain: Askatasunaren alde eta frankismoaren
aurka borrokatu zutenak oroitzuz*


Xabier Lasa Bergara

5.2.2.- Etxeberrietako laurak eta "Moriko", Tolosara eramanak

Hara boskotea: Antonio Aranzabal, Pio Arzallus, Nemesio Fernandez, Kruz Aldasoro eta Migel Amondarain. 36ko abuztuaren 29an Andoainen atxilotu ostean, biharamonean, Tolosako hilerrian fusilatu eta bertako hobi komun batean lurperatu zituzten.

★ Antonio Arantzabal Urrestarazu

Billabonan jaioa, 1894-1-6an.



34. Argazkia. Antonio Aranzabal, errepublikanoa eta abertzalea sentimenduz.

Emaztea, Maria Karmen Iartza Ormazabal (Andoain, 1893). Seme-alabak, Guadalupe (1924), Luzia (1925), Miren Arantzazu (1926) eta Jose (1930). Larramendi Kaleko 15ean bizi ziren.

Nahiz eta 36-9-30ean hil, bere heriotzagiriak 44-2-16a arte itxaron behar izan zuen.

Ogibidez gadaragile zen Leitزارango Zentralean.

UGT sindikatuan zegoen afiliatua., eta "Cooperativa de Casas Baratas, Pablo Iglesias" elkarteko bultzatzailetako bat zen (xehetasun gehiago, Errepublikari eskaintako kapituluan).

Antonioren giza-ezaugarriak eta gizarte kontzientzia, bi alderdi horiek nabarmentzen ditu hara Arantxa bere alabak:

"Seme-alabatxoak maite zituen, eta afektibitatea ematen zekien aita zen guretzat. Ezkerreko errepublikanoa eta euskaltzalea zen batik-bat. Langile kontzientziari eta elkartasunari berebiziko garrantzia ematen zion. Nagusiak ordu estrak sartzeko agintzen zionean, adibidez, aitak idealismoz jokutzen zuen: bazekien, familiaren ekonomi ahulari mesede izugarria egingo ziola xoxen bat jasotzea, eta bazekien muzin eginez gero lanpostua kolokan geratzen zitzaiola. Hala ere, pentsaerarekin koherente izan nahi zuenez, ezezkoa ematen zion; herrian langabe bat bakarra zegoen bitartean, hura ez zela joango lanera, erantzuten zion.

Goiko ugazaben begietara manekaitza gertatu arren, gero estimatzen zuten, oso iaioa baitzen esku-lanetan."

Abuztuaren 29an, atxilotu eta kamio bateko atoirra igo zuten; une berean atxilotutako Nemesio Fernandez eta biak, elkarrekin lotu zituzten. Arantxa bere alabatxoa hantxe gertatu zen, sekuentzia guztia ikusten. Trantze horretan, aitak zera agindu zion: "Arantxa, ivete a casa!". Hitz horiek kopetean zizelatur dauzka Arantxak harrezkero. Familiari zuzendutako Antonioren azken hitzak

izan ziren, bitartekaririk gabe behintzat; bere bizitzako lehenbizikoak, eta azkenak, gazteleraz.

Laster batean ezkutatu zen kamioia Arantxaren begietara, Tolosako norabidean. Itziar Amutxastegi, Antonioren ilobak darrai kronika:

“Orduak aurrera zihoazen, eta inongo berririk ez zenez sortzen, Antonioren arreba eta gure ama zen Pilar, erotu beharrean jarri zen. Nora jo ezjakinean, Inazio Larrarte apaizarengana jo zuen lehenbizi. Karlista zen bera, eta Antonioren bidelagun ehizera abiatu ohi zirenean. Errugutu zion gure amak arrenka eta mesedeka, gestioak egin zitzaala, erabil zezala faxisten aurrean zeukan izen ona. Harek, ordea, dena ukatu zion. Alferrik ari zela eta, Joakin Bermejo erretorearengana abiatu zen. Honek amari eman zion erantzunak, ezintasuna islatzen zuen: <<zer egin dezaket nik, txintxilika jarri nautenen aurrean?>>. Eta ez zen gezurra. Bidezkoak ziren bere susmo txarrak: Ondarretako kartzelan sartu zuten denbora asko gabe.

Pablo Etxebesterengana jo zuen, hurrena. Gizona zinegotzia zen eta militarrekin tratu ona zuela, denek zekiten herrian. Etxebeste bera hurbildu zitzaion etxera. Sukaldean eseri, zerura begiratuko balu bezala lepoa luzatu, eskuz gurutzearen seinalea egin mahaian, eta halaxe adierazi zion: <<Jaungoikoa hor goran dagoen bezala esaten dizut zure anaia ez dutela hil>>.

Etxebesteren hitzarekin fidatzen ez, ordea, ama! Kontua da etsipenak eta amorreruak Pilar Olajaunaneke ostatura eraman zutela. Han ezarri zuten Andoaingo Udala behin behineko egoeran, balkoitik bandera piperpotoa zintzilikatu ostean. Han biltzen ziren, lehenbizi errepresioan lagundu eta gero herriko agintaritzari hartu zuten herriko jauntxo eskuindarrak (Maindi etxeko Urrutia anaiak, Joakin Arratibel, Juan Kruz Artola, Fernando Zalakain, Txomin Soroa...). Han biltzen ziren, herriko saltsak aztertu eta *nazionalen* balentria belikoak ospatzeko.

Guztiek osaturiko mahaira, galdera bakarra bota zuen, zapla!, amak: <<nora eraman duzue anaia?>> Denak mutu geratu ziren. Lasterrera, baina, Arratibelek hautsi zuen isiltasuna, bere-berea zuen harrokeriaz, zera erantzuteko: <<zertarako ibili panplinetan, zure anaia aspaldi ditu hankak oztuak!>>. Ama gajua zurbil geratu zen hori aditu bezain pronto, eta negar batean jausi zen laster. Nahikoa eta gehiagi egin zuen deneri bizkar eman eta koinatarengana joan zenean lasterka, berri gaitza ematera.”

Joakin Arratibel okinak errepresioaren atal honetan jokatu zuen funtzio azpimarragarria berrestera datorren beste testigantza bat Joakin Bermejok dakargu. Iparraldean aterpe bilatu zuenean Jose Migel Barandiarani idatzi zion txostenean aipatzen du Arratibel, hain zuzen.⁵³

“Egunetara, kaleko marmarren eskutik jakin genuen ze bi delitu leporatu omen zizkieten: lehena, errepublikanoeci chiza-eskopeta borondatez eman izana, horixe eskatuz zabaldu zen bandoari jarraiki; eta bigarrena, Belabietan erreketi aurre egin zieten bolondresen partidetan partu hartu izana. Aldi berean,

nonbait, beste zuhurtzigabekeria egin omen zuen: Nafarroan gaiztakeritan zebiltzan altxatuengatik gaizki esaka jardun izana.”

Egunetara, familiak erreketen kapelau baten bisita jaso zuen; gutun labur bat zekaren Antonioren izenean. Hiltzaileek idatzia zen, eta bertan Antonioren gauza bat adierazten utzi zioten soilik: emazteari uzten zizkiola ondasunak.

“En nombre del detenido Antonio Aranzabal, mayor de edad, 43 años, casado y vecino de Andoain, calle Larramendi nº15, y nacido en Villabona pero residente en Andoain desde hace veinticinco años, extiendo este testamento porque el citado Antonio Aranzabal se halla condenado a la última pena por delitos de guerra:

“Yo Antonio Larramendi (sic), declaro que estoy casado con Carmen Yarza, de cuyo matrimonio me viven cuatro hijos: llamados Guadalupe, Lucia, Aranzazu y José Aranzabal Yarza y declaro dejar heredera número al de todos mis bienes y enseres presentes y futuros a mi esposa Carmen Yarza Ormazabal, por cuanto firmo y rubrico ante el Jefe de Milicias de Falange Española de las J.O.N.S. Sergio López Arteché y Miguel Aldaz Mariezcurrena, vecinos ambos de Pamplona (Navarra), mayores de edad y que firman con él.

Tolosa, 29 de agosto de 1936”.

(Firmas de Antonio Aranzabal, Sergio López y Miguel Aldaz).”

Aranzabal-Iartza familiak bizi izan zuen infernurako bidai malapartatuak jarraipena izan zuen aitaren heriotzaz haratago. Gerra bukatu eta gero Luzia eta Jose Diego seme-alabak gaixotasunez hil ziren. Luziak meningitisak eraman zuen 43-4-4ean, eta Jose tuberkulosiak, 43-9-9an.

* Nemesio Fernandez Argiarro, “Nemesio Korneta”

Andoainen jaio zen, 1894-11-7an.



35. Argazkia. Nemesio Fernandez eta bere emazte Rafaela Agirre.

Gurasoak, Antonio eta Kasilda. Emaztea, Rafaela Agirre Isasa (1893). Seme-alabak: Imanol (1919), Arantzazu (1925), Iñaki (1928) eta Miren Edurne (1933). Larramendi Kaleko 21ean bizi zen familia.

36-9-30ean hil zuten, eta bere heriotzaren berri 39-7-13an jaso zen Erregistro Zibilean.

Euzko Langileen Alkartasuna (ELA) sindikatuko Andoaingo lehendakaria izan zen Errepublikara garaian.

EAJko zinegotzia ere izan zen 31-4-12an, herri honen historian lehen hauteskunde demokratikoetan hautatua izan ondoren. Bazeukan dohairik eta atrebentziarik jendarean mintzatzeko. Hala egin zuen, konparazio batera, Madrilgo Korteetarako 33ko hauteskunde orokorrak zirela-eta, Goiburu auzoko Itsaso baserrian. Bera bezala zinegotzi eta bera bezain ekintzaile eta geldigaitza zen Pello Ugalderekin batera jardun zuen.

Bere fazeta publikoa eta militantea, politikagintzan, sindikalgintzan eta euskal tradizioarekin zein kulturarekin zerikusia zuen ekinbide guztietan banatu zuen.

34ko abuztuan udal kargua utzi egin zuen; udaletxeko aguzaila izendatu zuten, bi funtzioak bateraezinak egin zitzaizkion. Ez zen denbora asko behar izan Nemesioren lanerako zintzotasuna eta zorrozatasuna nabarmendu zedin. Agudo lortu zuen herritarren estimua eta agudo ere jarri zioten *Nemesio Korneta* goitizen sinpatikoa; izan ere, bando berriemaileak musika-tresna horren laguntzaz pregonatzen zituen herriko kaleetan.

Atxilotu ondoren Tolosara zeramatela, alferrikako lanak izan ziren familiarrek agintari faxista berriei egin zizkieten erreguak, bera salbu jartzearen mugi zitezen; erregutik erregura, gogora ekartzen zieten gerra hasi eta lehen egunetan Nemesiok jarri zuen borondatea haiei babesa eskaintzeko.⁵⁴

Tolosako heriotzen biharamonean, erreketen kapelau baten bisita izan zuen familiak; emazteari hilketaren atariko azken xehetasunak eman nahi izan zizkion: Andoainen atxilotu eta Tolosako kapillara eramane omen zituzten; baten batek uko egin omen zion aitortzari hasieran, baina azkenerako boskotea kapelauren aurretik pasa zen. Nemesiok aieneka igaro omen zuen gaua, lau seme-alaba errukarrien patua burutik ezin kendurik.

Nemesio erailda, familiaren paraderoa ondorengo izan zen: Imanolek andoaindarraren Bizkairako ebakuazioan egin zuen ihes; han atxilotu egin zuten, baina laster aske utzi zuten adinez txikia zelako. Familiako gainerakoak Zezilio Agirre Isasa, amaren anai eta Aiete auzoko kapelauren etxean babestu ziren.

Odolez blai egindako faxismoak berriro kolpatu zuen familia, Miren Edurne sei urteko alaba gazteena zoritxarreko gertaera batean nahastu zutenean. Ezaguna da Donostian udara pasatzera etortzen zirenean *Caudilloa* eta bere familiak nolako handikeria erakusten zuten. Segizio egiten zioten Erret Guardia, polizia, bizkarzain, herrialdeko agintari eta gainerako losintxariek inoiz ez zuten neurririk hartzen errepidean, bidea orraztuta eta libre izan ohi baitzuten beti. Bada, 1939ko urriaren 14an, larunbatarekin, Francoren emazte Carmen Polo eta bere alaba Carmencita, Aieteko jauregitik irten eta Donostiako hirigunera abiatu ziren, ezin abiada biziagoan, ohi zutenez. Bidean, ordea, Miren Edurne harrapatu zuten, eta zerraldo utzi lurrean.

Garaiko prentsa frankistak, propaganda organo ofizialak, bi jokabide ezberdin hartu zituen gertakariaren aurrean: bata, manipulazio lotsagarria *-La Voz de España-*; bestea, hilobiaren pareko isiltasuna, egindako gaizkia argitan jartzen zuena *-El Diario Vasco-*. Lehenak, 1939-10-17an, asteartean, goikoz behera jarri zituen istripuaren detaileak; *Caudillo bedeinkatua*-ri beste miraria egotzi nahi zion, nonbait, beatifikaziorako bidean jartzeko. Ikusi bestela, egunkariko azalean, diktadorearen Gipuzkoako egonaldiari zegokion tarte bereziaren barruan, istripuari eskaini zion kronika *"La generosidad del Caudillo"* titulopean:

“El sábado último, en las afueras de la ciudad, cerca de del palacio de Ayete, ocurrió una desgracia que costó la vida a una niña de corta edad, hija de unos labradores.

Un grupo de niños jugaba con una pelota, la cual fue a parar debajo de una camioneta que se hallaba parada en la carretera. Una niña de seis años fue a recoger la pelota en el preciso momento que la camioneta se ponía en marcha, sin que su conductor pudiera hacer nada para evitar que la niña fuera arrollada por el vehículo. La infeliz quedó muerta en el acto.

La madre de la niña, que presenció la desgracia, empezó a dar gritos desgarrados, que fueron oídos por el Caudillo, quien en aquellos momentos se hallaba trabajando en su despacho del Palacio de Ayete. S.E. se asomó al balcón y dio orden de que se le informara de lo que había sucedido, y al enterarse de la desgracia, se emocionó vivamente, y dispuso que en su nombre se diera el pésame a los padres de la criatura y que a su madre se le atendiera debidamente. Además, S.E. envió a la madre un importante donativo en metálico.

El numeroso público que se había estacionado en el lugar de la desgracia conoció con honda emoción y simpatía el rasgo del Caudillo.

El domingo por la mañana se verificó la conducción del cadáver de la niña en cuestión al cementerio, y sobre el féretro se veía una magnífica corona de flores naturales enviada por Carmencita Franco Polo.

Entre los sencillos y honrados labradores, la generosidad del Caudillo y la piedad de su hija Carmencita están siendo comentadas con el mayor entusiasmo.”



36. Argazkia. Miren Edurne Fernandez, Francoren auto ofizial batek hil zuen sei urte zituela.

El Diario Vasco-k, bere aldetik, ez zuen gertakariaren aipamen ziztrinik egin, nahiz eta Caudillo-aren gizatasuna ageri-agerian geratu, aurreko kronikari kasu eginez gero. Isiltasun horrek, egiazki, adierazten diguna da istripua bera, Francoren ustezko ondorengo erreakzioa... ez zirela horren ohoregarri izan francotarrentzat. Francoren keinua benetan horren gizatiarra izan balitz, Jakida gainera, garaiko prentsa frankista nola egoten zen beti erne *Generalísimo*-ak noiz egingo edozein mugimendu, hura puztu eta goratzeko.


★ Pio Arzallus Albisu “Pio Xoldadu”

Errezilen jaioa, 1882-7-11-7an.

Emaztea, Pantxika Unanue Mutio (Andoain, 1879). Seme-alabak, Bernardo (1906), Nikolasa (1910), Beatriz (1912), Jazinta (1915) eta Anttoni (1918). Bizilekua, Larramendi Kaleko 9an.

Subijanakako langilea izaki, ELA sindikatu afiliatua zen.

Pioren heriotza, familian epe laburrean banan-banan helduko zen heriotz sortaren lehena izan zen. Bernardo, bere semea, Itxarkundia Batailoiko gudaria zela hil zen Otxandion, 36-12-1ean. Pantxika, Pioren emaztea, 37-3-30ean hil zen; biriketako enboliak hil zuela zioen mediku-agiriak, baina Anttoni alabaren aburuz "ez zuelako bizi nahi" hil zen. Nikolasa, Pantxikaren ahizpa, 38-9-15ean zendu zen, arazo organikoak zirela eta. Eta azkenik, Beatriz, Pioren alaba, bihotzekoak jota hil zen, 39-11-9an.



Anttoni da, bere alaba, zorigaitzoko urte haiek guganatu ditzakeen bakarra:

"Aitak aparteko alaitasuna zuen. Zen bertsolaria, kantuzalea, euskaltzalea... Maiz hasten zen bertsoan edo kantuka, bakarrik zegoenean nahiz jendartean.

Errepikatzea gustukoa zuen kantak -nik uste bere ontasuna eta elkarrizketa zaletasuna ederki islatzen zuena, gainera-, halaxe zioen: <<euskaldun seme danok behar degu lerratu, lehengo gorroto denak utzi eta elkartu, aberriko hizkuntza gogotik indartu, jainkoa eta lege zaharra guztiok kezkatu>>.

Poztasun eta bizitasun hori ez zen, nonbait, zenbaiten gogoko. Azienda-garraiolaria zen bizilagunaren salaketak hor izan zuela errurik, uste izan dugu beti. Egia esanda, bai esker gaiztokoa! Zera, aitak gizon bihozgabe horren familiari mesederik besterik ez zion egin bizi guztian..."

Anttoni, Nikolasa eta Bernardo senideek -Centro Catolicoko bazkideak bi lehenak, eta ELA sindikatura afiliatua hirugarrena-, ez zuten duda-mudarik izan Andoaindik hanka egiterakoan 36ko abuztuan.

"Aita-ama gurekin eramaten saiatu ginen, <<goazen, goazen, hilko gaituzte eta gainantzean!>>. Baina biak ordurako elkar hitzeginda zeuden, eta erantzun ziguten: <<hil behar bagaituzte, nahiago etxean!>>. Etxean geratu ziren, eta Jaxinta gure ahizpa haiek zaintzera geratu zen.

Fotografía nº 37. Pío Arzallus y Su esposa Pantxika Unanue.

Balkoitik, gure osaba batek garbi asko ikusi zuen aita etxetik atera eta nola sartu zuten kamioi batera; bera bezala hartutako lagun-taldea zegoen han. Zerriak garraiatzen diren posturan eraman zituzten, gizajoak!

Handik egunetara, Tolosako frantziskotar bat ate joka azaldu zitzaizen etxekoei. Aitaren heriotza amari baieztatu nahi omen zion. Gurutze txikia, Kororen Amabirjinaren domina eta Pioren eskuizkribua zekartzan (lasterrera etxeko ondasanak errekiatzera joan zirenean, gutun hori ere desagertu egin zen). Gutun horretan Pantxika bere emazte guztizkoari zuzendu zizkion azken hitz eta sentimenduak agertzen ziren. Gogoan ditut zenbait adierazpen: <<*Dicen que nosotros somos malos y que nos van a matar; y que luego quedarán ellos los buenos. Pantxika ez apuratu negatikan zergatik nik zerutikan lagunduko dizut*>>.

Pentsa dezakezu nola geratu zen ama, bizitzeko gogo izpirik gabe! Hartaz gero bururik ez zuen altxa. Munduan ez zegoen hura kontsolatuko zuen gizakirik!

Pioientzako salaketa groteskoa izan zen erabat: <<*etxean argi susmagarriak zituen, morse alfabatoaren bidez etsaia, gorriak, mezuak bidaltzeko*>>. Argi mezulariak Belkoian mendira omen zihoazen, tropa frankistei aurrerabidea oztopatzeko lubakietan jarri-ta zeuden milizianoentzat...

Hilabeteak aurrera, Bernardok Bizkaiko frontean galdu zuen bizia, eta Nikolasa eta biok Frantziarako bidea hartu genuen itsasoz, Santandertik. Mediku batek hartu gintuen bere Parisko etxean. Harek beti aholku berbera ematen zigun: <<*!Ez zaitzte joan Espainiara, dena beltz izango duzue-eta!*>>. Ez zuen arrazoi gutxi. Guk jaramonik egin ez, hala ere! Itzuli ginenean, ez ikusiaren eta mespretxuaren errosarioa hasi zen. Kalean margaritak, tokiko erreginak, jenio gaiztoz egiten ziguten karraxi: <<*!Anda, ya venis, no os da vergüenza, muertas de hambre!*>>. Jose Antonio Agirrek ondo baino hobeto zaindu gintuela eta ogi beltza ere ematen zigula ozen erantzuten genien guk beti. Hargatik behin, zigor polita jaso genuen: egunero Komandantziara, deklaratzera.

Nork eman lanik gu bezalako *gizatxar arriskutsuei*? Subijana nagusiarengana jo nuen, gerra aurreko lanpostura itzultzen utziko zidan eskatzera; berak zakarki galdetu zidan ea ez ote nuen lotsarik *gorria* izaki hara joateagatik, eta hau eta beste. Ni, mutu bien bitartean, duintasuna eta tenplea ez galtzen saiatu nintzen. Autoritatea eta boterea erruz izango zuen, baina erretolika eten zuenean, halaxe erantzun nion: <<*oiga señor, aún no hemos perdido la vergüenza, ¡aunque hayamos andado por el extranjero!*>>. Etorritako bidetik bidali ninduen, haserre bizian.

Nola edo hala, azkenean Olestu enpresan, egur-tailer batean eman zidaten lana. Harretan asteak pasa dira, bada, eta hor etorri zait gutuna Subijana berak sinatua: <<*como había sido una persona trabajadora, aunque pequeña de corpulencia muy trabajadora, hiciera el favor de presentarse donde él*>>. Abiatu nintzen haren bulegora; arrosoiak ondo gordeta joan nintzen, ez bainengoen prest, inolaz ere, berak gogoan zuen guztia isil-isilik entzuteko. Erretolika galanta bota zidan, losintxak eta guzti, eta <<*Si quiere, puede venir a trabajar mañana*>> esan eta bukatu zuen. Nik, orduan, erantzun nion: <<*Ahora se acuerda de mí, cuando usted me ha llamado sinvergüenza, y nos han matado al padre, ¿qué le parece a usted esto?*>>. <<*Ya se que es una buena chica, y perdóneme*>>, erantzun zidan, umil planta jarriz.

Total, bere eskaintza onartu nuen. Egin kontu, lantegiko atetik sartu orduko, Urrutia *marruxkino* enkargatuak, Don Carlos bera baino karlistagoa zenak egin

zuen garrasi, malizia zikina berarekin zuela: <<i>Huy, ya viene Arzallus. Ésta si que nos va ha sacar la producción!>>. <<¿Y qué?>>, erantzun nion nik lotsagabe-lotsagabe.

Errudunaren estigma ezin izan genuen bizkarretik kendu, ezta Franco hil da eta gero. Begira, behin Arantxa Aranzabal eta biok egin genuen Donostiako buelta. Bion aita fusilatuengatik pentsioak jasotzeko formalismoak betetzera joan ginen. Ileran geundela, hor esan dio guardia zibil batek besteari, guk aditzeko moduan: <<Éstas a qué vienen a aquí; si no hubieran hecho nada malo no los hubieran fusilado>>.

Estatuak eman zigun diru-laguntza hartatik, orain 9.000 pezeta jasotzen ditugu; huskeria eman ez garbitu nahi izan zuten gutarren oroimena!”

★ Kruz Aldasoro Elizaso

Errenterian jaioa, 1902-9-14an.



38. Argazkia. Cruz Aldasoro, errepublikanoa eta abertzalea.

Emaztea, Benigna Gonzalez Fernandez (Andoain, 1900). Semeak, Migel (1930), Jose (1932) eta Patxi (1935). Larramendi Kaleko 9an bizi zen familia.

36ko abuztuaren 30ean fusilatu zuten; bere heriotza 1944-4-1ean idatzi zen Erregistro Zibilean.

Forjatzailea zen SS-Tolosa Tranbiako Zentralean.

Jose, bere bigarren semearen iritziz, “*politikoki euskal nazionalismoren eta ezkerreko errepublikanismoaren artean banatzen zen; baliteke EAE alderdiaren alde jotzea*”.

Lanetik itzultzerakoan atxilotu, eta Tolosan fusilatu zuten beste lau andoaindarrekin batera. Bere heriotzaren ostean, alargunari eta hiru seme txikiei etorkizun latza heldu zitzaizen, bai bizirauteari baita elkarbizitza sozia-

lari ere zegokionez. Andoaingo udaletxean 36ko urriaren 14an burutu zen udal-bilkuran hartu zen erabakiak nahiko argi adierazten du hori guztia:

“Dada lectura del escrito que la vecina de esta villa Benigna González Fernández presenta solicitando algún auxilio en tanto se tramite el ingreso de su hermana en la fábrica de Subijana, y pueda ella dedicarse a la venta de pescado, ya que muerto su marido en circunstancias de todos conocidas, la familia ha quedado en la mayor de la miseria, el ayuntamiento, fundándose precisamente en las circunstancias que han concurrido en la muerte de su esposo, acuerda desestimar la petición.”

Hala ere, esan behar da erabaki gogor hori pittin bat leundu -edo kontzientzia zuri- nahi izan zela hamalau egun beranduago egin zen udal bilkuran:

“Asimismo acuerda, haciéndose cargo de la situación en que se encuentran los niños de la vecina de esta villa Benigna González, concederles por un mes el socio-

rra de 2 litros de leche y tres litros de pan.”

Benigna Gonzalezen izena administrazioaren paparetan topatu dugu beste behin. Klaudio Artola udal administratzaileak argi-indarraren ordainketa hiru hilabetez zor zuten Andoaingo biztanleak zerrendatzen ditu 37-3-18an, eta bertan azaltzen da Benigna. Ohar labur bezain esanguratsua dagokio emakumeari: “*adeuda por carecer de trabajo y no poseer bienes*”.

Josek amorruez gogoratzen du zein egoera anparogabera baztertu zuten ama. Egoera triste hori, burura datozkion zenbait pasadizurekin laburbiltzen du:

“Ama arraina kalean saltzera jarri beste erremediorik ez zuen eduki, baina denbora pasa ahala, gaiztakeriak gaiztakerien ondotik egiten zizkiotela eta, Donostiara joatea erabaki zuen minez eta penaz, Migel eta Patxi, nire anaiak hartuta. Ni bi izebekin, Rosalia eta Angelarekin, utzi behar izan ninduen.

Amarentzat infernua zirudien giro hartan, hainbat gertakari lotsagarri kontatzen zitzaizkion; adibidez, asteburuetan, gauz auzotar bat, Mariano *Kuxkullu*, gure etxeko balkoiaren azpian jartzen zen. Trikitia jotzera jartzen zen, trufa egiteko aitaren memoriari eta familiaren desgraziari. Etxeko helduei kirioak dantzan jartzen zitzaizkien, eta haietako aldarte batean, izeba batek aizkora hartu eta, alprojari aurre egiteko imintzioa egin zuen. Ama garaiz atera zitzaion bidera, eta zerbait lasaitzea lortu zuen. Amak ondo zekien probokazioari erantzunez gero ez zetorkigula gauza onik; ez zuen bigarren fusilaturik nahi familian.

Aita hil zutenean nik lau urte nituen, eta jakina, ezin hartu gertakarien kontzientzia, gertatzen ari ziren unean. Nolanahi ere, kuriosoa da: gerra bizirik zela oraindik, Andoaingo frankismoaren buru sutsuenetako bi gizonak jakinarazi zituzten familiararen historiala. Haurrak derrigorrez doktrinatzeko jarri zituzten lehenbiziko bileran, gogora datorkit On Konstantino apaiza nola hasi zen banan-banan galdezka nongotarrak ginen. Txanda egokitu zitzaidanean, hala adierazi nion: <<*Aldasoro, de Etxeberrieta*>>. Senez eta bizkor erreakzionatu zuen: <<*!hijo de rojillos!*>> oihi egin eta zarta! masailekoa ematea, bat izan zen. Orduan hasi nintzen ulertzen zeozer arraroa gertatzen zela falta nuen aitaren inguruan. Eta bidebatez, orduan ulertu nuen zergatik jarri zioten goitizena, *constantino-pla!*; kristau ikasbidea erakusteko erabili ohi zuen zirt-zart metodoak biktima asko eragin zituen, eta normala zen mendeku txikia hortik bideratzea, nolabait.

Urteak aurrera, bere gisa hitzegiten zuen pasadizu bat aipatu nahi nuke. Etxeberrietako Loidi tabernara sartzen nintzenean, ohartzen nintzen Sorabillako pertsona batek beti-beti, mahaiko karta-jokoa zegoen zegoenean utzi, altxa, erronda ordaindu, eta aldegin ohi zuela. Nago nire presentziak iraganetik zekarren kontzientzia txarra berpizten ziola. Gizaseme hori ez zen edonor, alkate izan zen 36ko lehen fusilamenduekin batera.”

★ Migel Amondarain Zumeaga, “Moriko”

1913an jaio zen. Ama, Nemesia Zumeaga (1885). Arrebak, Josefa (1914) eta Nieves (1918). Koinatua, Pedro Sancho Villalba (1911).



39. Argazkia. Migel Amondarainek neska-lagunarenganako amodioa segurtasun pertsonalaren gainetik jarri zuen, eta horrek heriotza eragin zion.

borrokakide izan zen, nola Oriako borrokaldietan hala Guadalupeko kartzelan. Bera izan daiteke pertsona aproposa Migel hezi eta hazi zen Oriako giro soziala deskribatzeko, eta auzoak sona hori hartu izanaren arrazoiak argitu ditzakeenak:

“(...) la empresa Brunet era la dueña del pueblo... Ellos tenían fama como empresarios y gestores, pero como patrones eran auténticos explotadores... La empresa no solía bajar de los doscientos trabajadores. Los pisos, la electricidad, el agua, el economato, todo estaba en manos del señor Brunet y muchas familias trabajadoras en lugar de ahorrar algo, cada vez estaban más endeudadas... En nuestro pequeño piso ni había agua corriente y se sufrían las consecuencias de la escasez. Sufríamos mucho, pero no le dábamos un sentido político o social...”⁵⁶

Auzoko gazte gehienien antzera, Migel 14 urtez hasi zen lanean Bruneten; astean 60 orduz eta 8 pezeta eguneko. 1930ean zenbait langilek, tartean Migel zela, sindikatu bat eratzeke saiakera egin zuten. Ekimena indarrez ahultzeko asmoz, nagusiak beste sindikatu bat, berak kontrolatutakoa, eratu nahi izan zuen; horretarako, Rosendo Rekondo apaizaren konplizitateaz baliatu nahi izan zuen (gero 36ko hondarrean Andoaingo parrokiako erretore izendatu zuten). Bilera batera deitu zitzairen langileei Oriako San Pedro elizan. Han bildu ziren Migel, Victorio eta beste borrokakideak; hasi eta berehala, bilera boikoteatu egin zuten, Internazionala kantatuz. “(...) *Apaiza, sotana altxatu eta lasterka irten zen ikusi zuen sakrilegioaz izututa...*”.

Oria auzoan (Urnietako udal-barrutia) bizi ziren. Andregaiia Andoaingoa zuen eta eguneroko bizitza herri honetan egin ohi zuen, batik-bat Errepublika garaian; hortik letorke andoaindartzat jotzea.

Migel UGTko sindikalista izan zen. Bere nortasun soziala eta politikoa Errepublikan Oria auzoan bizi zen langile-kontzientzia sendoarekin lotuta joan zen ezinbestez.

34ko iraultzako mobilizazioen testuinguruan atxilotu zuten eta hiru hilabetez eduki zuten entzerraturik Guadalupeko gotorlekuan.

Oriako auzoa, jende euskaldunez eta etorkinez osatua, Brunet enpresaren inguruan joan zen hazten. Borroka tradizio handia zuen auzoak, eta hortik zetorkion *Errusia Txikia* goitizena; egia esan, sona horrek leiendatik bezainbat zuen errealitatetik. Victorio Vicuña Ferrero, PCEko militantea, Migelen

Azkenean, izakera errebindikatzailea izango zuen sindikatua eratu zuten Oria auzoan,

“(...) Más que motivación política, sólo veíamos en el sindicato un elemento para mejorar las condiciones de vida, la mera lucha por la existencia... Fundamos también una cooperativa de consumo obrera, con mucho esfuerzo, porque con ello perdió Brunet una fuente de dinero y un mecanismo de presión. En dos años conseguimos ya distribuir un dividendo a las familias en función de lo consumido. Fundamos también las JJ.SS., las Juventudes Socialistas, y participamos en largas y enconadas luchas para reducir las jornadas de trabajo y mejorar los salarios...”

Behin gerra pizturik, Oriako auzotar gehienak Errepublikaren alde jarri ziren. Auzoan gertakizun guztiz esanguratsua eman zen: auzoko 608 biztanletik (35ko abenduan osatutako Urnietako erroldaren arabera), 434 Errepublikaren mende zegoen Bizkaira egin zuten ihes (Migelen sendia, tartean); hots, biztanleri osoaren %71,38a. Zalantzarik gabe baieztatu dezakegu Gipuzkoan ez zela izan halako ebakuaziorik ezagutu zuten auzo edo herririk.

Migelek bizi zituen azken uneak tragikoki amaitzen den filma erromantiko batetik hartutakoak dirudite. Faxisten esku erortzen bazen zetorkion etorkizun beltzaz jabetu arren, Migelek ez zuten parte hartu Andoaingo ebakuazioan. Nahiago izan zuten andre-gaiaren ondoan geratu. Maitasunak lotu zion, andregaia babestearren bapateko erreakzio irrazionalak zuzpertuta. Faxistak herrian sartu eta arrisku bizi-bizian jarri zenean, andre-gaiaren amak -herriko eskuindar ezaguna- Kale Nagusiko etxean ezkututako zuela eta lasai egoteko agindu zion.

Itxuraz pentsaezina zena gertatu zen, halabaina: Migel saldu egin zuten ahal izan zuten lehen aldarrean.

Atxilotu eta Tolosan fusilatu zuten abuztuaren 30ean, beste lau andoaindarrekin batera, jakina denez.

Ez zen horretan amaitu salatariaren fijasioa Migelekiko: urtetan aurrera, Nieves, Migelen arrebarengan zuzendu zuten aiherra. Nieves berak halaxe aitortu digu:

“Andoainen lan egiten nuenez, adiskide ugari bertakoak nituen eta bertan egoten nintzen maiz. Anaia heriotzara eraman zuten emakume zital honek beti egin zituen eginhalak ni mintzeko. Halako batean ia erre ninduen bizirik: petril batean nengoen eserita behin, justu Zumea Kalean kokatzen zen Auxilio Socialaren balkoiaren azpian. Emakumeak gogora zetorkion edozer egiten eta desegiten zuten frankisten erakunde benefiko horretan. Bada, behelaldean nengoela ohartu egin zen, nonbait, eta zer otuko, eta hor pentsatu zuten ura irekiten jarri eta ontzi batez burutik beherra botatzea. Gaiztakeria betetzera zihola, lagun batek eman zidan abisua garraxika. Segundu baten kontua izan zen. Jainkoari eskerrak libratu nintzen kiskalita geratuzetik!”

5.2.3.- Erailak Ondarretatik igaro ostean

Andoaingo eta Urnietako 10 bizilagunen kontra eraman zen prozesu judiziala aipatuko dugu ondorengo lerroetan. Horietako zazpi fusilatzeke agindu zuten epailetak agerian utzi zuten *nacionalcatolicismo*-ak zein kontzeptu zuten justiziaz. Ondorengo andoain-